

hiruka

Euskararen Eguneko berezia · 153. zenbakia
2019ko azaroaren 28a



EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA Hizkuntzaren arnasguneak

Bihur dezagun baratze euskararen basamortua

hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Posta-kutxa: 171

Telefona: 944 911 337

Publizitatea: Maria Gorostiola

Erredakzioa: Unai Brea, Iker Rincon Moreno,
Hodei Torres

Diseinua: Artefakto

Administrazioa: Ziortza Merino

Zenbaki honetako kolaboratzaileak:
Irantzu Sagarminaga

Filmazioa eta Inprimategia: Comeco Gráfico

Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia

*foru aldundia
diputación foral*

Aldizkari honek Bizkaiko Foru
Aldundiaren laguntza jaso du.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua.

Euskara Uribe Kostan: airo



Aurkibidea

- 4 **Euskararen arnaguneak Uribe Kostan**
- 10 **Euskarazko lehenengo rol-jokoa sortu dute: Atopia RPG**
- 12 **Eunate Muruaga: «Erabili, komunikatzeko; garbituko dugu gero»**
- 14 **Euskararen Egunerako agenda**
- 16 **Euskaraldiaren bigarren edizioa aurkeztu dute**
- 18 **Maren Goienaga algortarra goraiatu du Getxoko Argia Ereiten Sariak**
- 20 **Hirukira Olgetan: umeentzako denbora-pasak**



«Gehiago, gehiagorek gehiagotan» euskaraz

e garbi bila



Eunate Muruagagaz berbetan



12

16



in eta
Z



**Atopia RPG; euskaraz
egindako lehenengo
rol-jokoa egin dute**

10



**Euskaraz goatzeko
hamaika aukera
egunotan**

14



Euskara Uribe Kostan: aire garbi bila

Badator Euskararen Nazioarteko Egunaren beste edizio bat, eta bidean dago, astiro-astiro, presa barik, bigarren Euskaraldia ere. Euskararekiko konpromisoak berritzeko hain egokiak diren hitzordu horiei begira, galdera bat egin diogu geure buruari: «Zer aukera du eskualde honetan euskaraz bizi gura duenak?». Erantzuna atsekabetzeko modukoa izan da, baina itxaropen apur bat pizten dute gure hizkuntzari lehentasuna ematen dioten ekimen ugari. Zoritxarrez, aurreko esaldia kontrako ordenan irakurtzen duten ezkorrak ez dira guztiz oker ibiliko.

TESTUAK: **UNAI BREA** ARGAZKIAK: **HODEI TORRES** • **KATERINA PAVLYUCHKOVA** ▶

Euskararen Nazioarteko Egunaren bertsio modernoa 1995ean jaio zen, gurasoak Euskaltzaindia eta Eusko Ikaskuntza zituela, baina aurrekaria askoz lehenago-koa da, 1949koa. Urte hartan erabaki zuen Eusko Ikaskuntzak izendapen hori ematea abenduaren 3ari, Xabierko Frantzisko Deunaren heriotzaren urteurrendatari. Arrazoiak, nonbait, nafar misiolari ospetsuak bere ama-hizkuntzan esan zituela mundu hau utzi aurreko azken berbak. 1552an jazo zen hura, eta handik 70 urtera igo zuten Frantzisko santu-mailara. Dakigula, aitortu zizkioten merituen artean ez zegoen euskaraz egin izana.

Baina itzul gaitezen XX. mendeko hizkuntz kontuetara. Hego Euskal Herrian frankismoa indar betean zegoela aldarrikatu zuen Eusko Ikaskuntzak lehenengoz Euskararen Eguna, ezin ezkorrago hasten zen agiria argitara emanez: «Eri gaizki da Eskuara, hil-hurran ezpada ere. Egun oroz gibelerat ari. Iparretik hegorat, zazpi herrietan barna alha da gaitza». Horiek izan ziren *Euskararen Eguna* izeneko manifestu laburraren lehenengo berbak, eta ez ziren pesimistenak.

Ordutik hona 70 urte igaro dira, denon gogoan dauden aldaketa ugari ekarri dituztenak. Datozen egunetan irakurri eta entzungo dugun adierazpen-oldean ez da agertuko «gaztek ez badute eskuara mintzatzen, ainhitz urte gabe, ohiko eskuarenak egin du» bezain esaldi gordinik. Kezka aipatuko da, gehiago egin beharra ere bai, baina azken hamarkadetan egingako aurrerapausoak ere goratuko dira. Ipin ditzagun balantzan batzuk eta besteak.

EUSKARAZ BIZITZEA, LAN GAITZA. Badira urte batzuk Euskararen Eguna ospatzeagaz batera *Euskarak 365 egun* leloa zabaldu dela. Sano ezaguna dugu baita ere *Euskaraz bizi nahi dut*. Esaldiok praktikara eroatea, berriz, esatea baino askoz zailagoa da gure eskualdean. «Uribe Kostan ez dago benetan euskaraz bizitzeko aukerarik», dio Alaitz Villate Getxoko Bizarra Lepoan Euskara Elkarteko kideak, «euskal hiztunontzat ez dagoelako lekuri eguneroko bizimoduan, egunero urratzen zaigu euskaraz bizitzeko eskubidea, ekintzarik sinpleenerako ere».

«Uribe Kostan euskaldun asko gaude, baina gure arteko erdaldun elebakarrek eragin handia dute», azaldu du Juanlu Aranburuk, Uribe Kostako Mankomunitateko euskara-teknikariak; «oso zaila da euskara hutsezko lekuri aurkitzea, inguru oso erdalduna da». Ez da harritzekoa, honenbestez, gure eskualdean euskaldun gutxi egitea hautua goizetik gauera euskaraz bizitzen ahalegintzeko. «Konpromiso handia eduki behar da horretarako», Aranbururen esanetan. Beste berba batzuek adierazi du Alaitz Villatek: «Oso gutxi bilatzen dute konfrontazio hori, besteak beste babesik ez dutelako».

Ez da lan txikia, «euskaraz egiteko aukera norberak bilatu behar duelako, eta bilatuz gero aurkitu egin daitekeelako... edo



Azaroaren 16an egin genuen HIRUKA Eguna Algortako Azebarri Kultur Elkartean. Euskaraz funtzionatzeko





EUSKARAK
365
EGUN

Alzaga Ikastola • Erandio BHI

ERANDIO



Zelan ailegatu nerabeengana?

«Ikastetxeetan sekulako lana egiten da baina gabezia dago, gaztetxoak 12, 13, 14 urtera iristen direnean jauzi handia ematen dutelako erdarara», dio Juanlu Aranburu Uribe Kostako Mankomunitateko euskara-teknikariak. Kuadrillategi proiektua da martxan duten egitasmoetako bat: 12-14 urte bitartekoei eremuak eskaintzean datza, modu dibertigarrian euskararen erabilera bultzatzeko. Arazo bat dago: gazteek parte hartzen dute, baina nagusiki gaztelaniaz egiten dute, begiraleek euskara hutsez jardun arren.

«Datorren urtean gai hau lantzeko foro bat sortzeko proposatu diegu ikastetxeei», azaldu du Aranburuk, «haurrek nerabezarora iristean duten erdararako joera eteteko». Uribe Kostako teknikariaren berbek agerian uzten duten beste esparru batzuetan bezala, euskararenean ere nerabezarora dela «konkistatzeko» adin-tarterik zailena. Kirola litzateke bide zuzenetako bat, baina Bizarra Lepoan Euskara Elkarteko Mikel Astorkik dioenez, «dena dago tokian tokiko entrenatzailearen borondatearen menpe, oso zaila da euskara benetan sustatzeko konpromisoa bere plangintzan sartuko duen kirol-talde bat aurkitzea; ez da zehar-lerro bat».

Euskarak duen beste hutsune bat ekarri du gogora Astorkik: «Teknologiaren garaian gaude, eta 15-18 urtekoei bost axola albistegiak zer dioten, baina ondo dakite nor den Instagrameko ospetsuena. Eta mundu horretan ere gabezia handia du euskarak». Ildo beretik, Alaitz Villatek uste du agian ez dela lagungarria euskaldunok kultur eskaintzaren aurrean garbizaleak izateko daukagun joera, zelanbait esatearren. «Izan ere, ematen du gaur euskalduna izateko ultra-koherentea izan beharra dagoela, erabateko *kultureta*; Gaztea ez zaigu gustatzen, *Gure Kasa* ere ez, *Argia* baino ezin da irakurri behar... Motxila astuna daroagu. Eta aizu, normalizaziorako bidean *Marca* moduko bat euskaraz izatea ere ona litzateke, adibidez».

ez», Villatek dioenez. Aurrez aurreko edozein zerbitzutan dago euskalduna zori horren menpe. Baliteke goizez euskaraz eska daitekeen fruta-dendan zerbitzari erdalduna besterik ez egotea arratsalde, edo baliteke («ohikoa da», azpimarratu du Villatek), euskaraz artatuko zaituenik ez topatzea, ordua edozein dela. «Baita administrazioan ere», kexu da Bizarra Lepoaneko kidea. Eta bizitzaren esparru denetarako balio du esandakoak. Getxoren kasuan, gainera, euskaraz bizitzen saiatzen direnen nekea areagotzen du oraindino erdararen aldeko militante asko egoteak, Villateren iritziz, «gero eta gutxiago diren arren, zorionez».

Zer egin? Juanlu Aranbururen ustez, «euskaldunok gure lekuak lortzen saiatu behar dugu». Ildo horretan, datorren urteko Euskaraldiari begira aurkeztu berri den Arigune kontzeptua ekarri du gogora Mankomunitateko teknikariak: «Arigune izan daiteke euskaraz bizi nahi duen gune txiki bat. Normalizaziorantz bidean, horrek izan behar du gure irtenbidea».

Adibide modura, nerabeak dabilzan kirol-taldeak aipatu ditu. «Lortzen badugu 12-14 urteko neska-mutikoei egunero entrenamenduetan euskaraz egitea, entrenatzailea euskalduna delako eta borondate hori duelako, sekulako aurrerapausoa da. Hori euskararentzako arnagunea da, atzerakorik gabek; entrenamendu horiek betiko euskaraz dira». Uribe Kostan horrelako pausoak posible direla nabarmendu du Aranburuk, euskararen ezagutza nahikoa badago eta. Adibide argia da aldizkari honen 18. orrialdean aipatzen den Maren Goienaga C.D. galea galdeko entrenatzaileak egindako lana, Getxoko Udalak saritu berri duena.

EUSKARARENTZAKO INHALAGAILUAK. Arnagunea soziolinguistikaren eremuko kontzeptua da, 1991n AEBetan sortua eta Euskal Herrira Mikel Zalbide euskaltzainak ekarria. Definizio ugari eman izan zaie arnaguneei, baina Zalbideren esanetan «eguneroko mintz-jardun arruntan (erabat edo batez ere) euskaraz bizi diren auzoak, herrixkak, herriak eta, inoiz, eskualde osoak» dira.

Hainbat egilerentzat, ordea, irizpide geografikoa gainditzen du arnagunearen ideiak. Hala, hizkuntza jakin bat erabilera arruntekoa den edozein gune (elkarte bat, ikastetxe bat, lantoki bat) litzateke arnagune. Areago, kontzeptua kokapen fisikoagaz lotzea zalantzan ipintzen duenik ere bada. Begiratu, esate baterako, Josu Amezaga EHuko irakasle getxoztarrak 2016an esandakoari: «Aitortuko dut [arnagune] terminoa ez dudala gustuko, eremu fisikoari ematen dion gehiegizko pisuagatik. Termino hau proposatu zenetik hona, nabarmen aldatu dira pertsonen harreman-moduak; komunikazioa eta eremu fisikoaren arteko lotura askatuz joan da».

Hain zuzen ere, Getxoko Azebarri Kultur Elkartearen sorrera txalotzeko idatzitako artikuluan esan zuen hori Amezagak. Hau da, Uribe Kosta osoan leku fisiko zehatz bati lotutako euskararen arnagune bakarretakoaren sorrera. Ehun bazkide inguruk bertan euskaraz bizi ahal izateko abiarazitako gunea eta

helburuz ehun bat bazkidek martxan ipinitako egitasmoa da Azebarri. HODEI TORRES

ERAIKUNTZA ZERBITZU INTEGRALAK

GARAIZAR

BARRIKUNTZAK

Illeta, 1 · 48991 ALGORTA
944 305 243 · 607 952 977
regaraizar@gmail.com · www.garaizar.biz

TAPA TABERNA

Ostegun, bariku
eta zapatuetan
20:00etatik-13:00ak arte
pizza goxo-goxoak!
...eta gero jai giroa!

SANTA EUGENIA KALEA, 13
ERROMO

Uribe Kostako gazteria saltsan!!

proiektua da Azebarri, bazkide horientzat txoko modura funtzionatzen duena eta, gainera, euskara sustatzeko helburua duten beste batzuen ekitaldiak hartzen dituen. Hantxe ospatu genuen HIRUKA Eguna, berbarako.

BERBALAGUNAK, EKIMEN «OSASUNTUA». Azebarri, edo HIRUKA bera, ez dira adibide bakanak. Azken hamarkadetan egindako lanari esker, Uribe Kostan euskarazko eta euskararentzako lekuak egon badaude. Uhartetxikiak dira erdal itsasoan, baina euskaraz bizi gura dutenei lantzean behin oinak lehorrean paratzeko aukera ematen diete. Aipatu dugun eguneroko hizkuntza-nekea une batez ahazteko tarteak, euskaraz eroso jarduteko oasiak; deitu arnasgune, gura baduzue.

Esanguratsuenetako bat Berbalagun taldeak dira. Oro har, Bizkaian izen hori hartu du orain dela 25 urte Donostian jaiotako eta gerora Euskal Herrian barrena zabaldutako Mintzalagun ekimenak. Uribe Kostan 400 lagun inguru dabilta horrelakoetan, Getxon eta Erandion bertako euskara-taldeen koordinatuta eta Leioan eta Mankomunitatean, berriz, administrazioak (Leioan Berbalagun izena izan du egitasmoak azken sei urteetan, baina gauza bera da).

Eskualdeko Berbalagunen erdia Getxon dago, eta Egizu elkarte arduratzen da horiek dinamizatzeaz. Bertako kide Garaiz Elgezabalen esanetan, osasuntsu dago ekimena: «Askotariko jendea nahasten gara hor: euskaldun berriak, jendea ezagutu nahi duen jendea, euskaraz aritzeko aukerarik izaten ez duten euskaldun zaharrak... Badaude euskaraz ikasten ari direnak, baina badaude beste asko ere». Honenbestez, Berbalagun taldeen euskara-ikasleentzako trebatze-esparru hutsa izatearen estigma gainditu dutela uste du Elgezabalek. «Gaur egun Berbalagunak gara euskaraz bizi nahi dugunok, eta kito».

ADABAKIAK EZ DIRA NORMALIZAZIORAKO BIDEA. Dela herri-ekimenez, dela administrazioarenaz, Uribe Kostan badaude



Kanpomartxo, momentuz aurrera

Iraillean, Erandioko Berbotse euskara-taldeak iragarri zuen Kanpomartxo jaiaren etorkizunaz hausnarketa-prozesua abiaraziko zutela; arrazoietako bat zen «Ibilaldia eta beste batzuekin gertatu den bezala, jaia handitu egin dela, eta zalantza zegoela ea hasierako helburua (Erandioko euskaldunak elkartzeko) ez ote den lausotu, euskaldunak ez diren asko ere hurbiltzen direlako», elkarteko kide Mikel Zarateren esanetan. Azkenik, erabaki dute momentuz behintzat Korrikarik ez dagoen urteetan jaialdia antolatzen segitzea. Honenbestez, datorren udaberrian ere Kanpomartxo izango dugu; hortik aurrerako erabakiak geroko utzi ditu Berbotsek.

euskaraz jarduteko hainbat gune, eta hizkuntzaren erabilera sustatzeko hainbat ekimen. Umeek bakarka zein gurasoakaz jarduteko eremuak, irakurle-taldeak, txangoak, hainbat mota-tako ikastaroak, dendari euskaldunak identifikatzeko kanpainak, hedabideren bat edo beste... Dena da eskertzekoa, baina Alaitz Villateren iritziz ez genuke pentsatu behar eskaintza hori hizkuntz normalizazioaren sinonimoa denik.

«Guk sortzen ditugu euskaraz berez existitu beharko luke tenak, eta hori ez da normalizazioa», dio Bizarra Lepoanekoak, «normalizazioa litzateke administrazioak baliabideak ipintzea edozein eremutan euskaraz bizi ahal izateko, lehenik eta behin bere burua euskaldunduz, bide batez esanda». Gainerakoa adabakiak ipintzea besterik ez dela azpimarratu du Villatek. Eta horretan dabil euskalgintza.

Juanlu Aranbururen berbetan, «herrialde guztietan, nazio guztietan, hizkuntza berreskuratzeko prozesu batean, bi eragile nagusik aritu behar dute paraleloki: alde batetik herri-ekimenak eta bestetik hizkuntz politikak». Kataluniako adibidea aipatu du Uribe Kostako Mankomunitateko euskara-teknikariak: «Generalitateak arauak egiten ditu, eta Plataforma per la Llengua, herri-ekimenaren bidez, arau horiek sozializatzen ditu, eta kontzientziazioa bideratzen du. Han koordinatuta dabilta, eta hemen ere hala jokatu beharko genuke».

Arnasguneak sortu eta legez babestu, hori da bidea Aranbururen ustean: «Mapari begira, ikusten dugu hizkuntzaren erabilera poliki-poliki atzera eginez joan dela, inguru berde batzuk geratu arte, eta horiek dira arnasguneak. Orain kontrako noranzkoan egin eta galdutako eremua berreskuratzera joan behar dugu, baina horretarako, lehenengo, atzerakada gelditu beharra dago. Nola? Arnasguneak arauen bidez babestuz batetik, eta bestetik, poliki-poliki inguru batzuk berreskuratuz. Horretarako, konkista txikiak egin beharko ditugu. Bilboko Kafe Antzokia adibidez, edo Durangoko Plateruena, edo Azebarri bera...». Euskaltzale, hartu arnasa eta ekin bideari. ◀



ERANDIOKO BERBODROMOA

Abenduaren 3an, asteartea
Altzaga kiroldegian
9.30ean

Aurkezlea: Ugaitz Alegria
Gonbidatu bereziak: **Iholdi Beristain,**
Iker Lauroba eta Itziar Ituño







euskararen astea

Atopia RPG Euskaraz sortutako lehenengo rol-jokoa

«Irakurtzeko liburua ere bada rol-joko hau; denetarik du»

Euskarazko rol-joko baten proposamenak irabazi zuen iaz Durangoko Azokako Sormen Beka. Urtebete igaro da eta daborduko dena dago prest Euskal Herri alternatibo bat aurkezten duen Atopia RPG lanaz gozatzeko. Xabier Landabideak eta Eneko Olazabalek parte hartu dute proiektua osatzeko taldean.

IKER RINCON MORENO ►

Berrogeita bost urte igaro dira munduan lehenengo rol-jokoa aurkeztu zenetik: *Dungeons and dragons*. Ingeleseko lana izan zen hura, eta ordutik hona ez da sekula euskarazko mota horretako jokorik egon, Eneko Mazok euskaratutako Antzinako Eskola izenekoak kenduta. Gabezia horretatik abiatuta, Atopia RPG rol-jokoaren proiektua aurkeztu zuten hainbat lagunek 2018ko Durangoko Azokaren Sormen Beka, baita irabazi ere. «Horixe izan zen behar genuen aitzakia proiektu hau aurrera eramateko», azaldu dute Xabier Landabidea eta Eneko Olazabal proiektuaren sustatzaileetako bik.

Urtebeteko epea eta 15.000 euroko beka izan du lantaldeak euskarazko lehenengo rol-joko hori egikaritzeko, eta aurtengo Durangoko Azokan aurkeztuko dute. Behar denak asetzeko, askotariko lantalde bat osatu behar izan dute, ilustratzaileak, idazleak eta kontalariak harremanetan jarrita. Landabideak eta Olazabalek aitortu dutenez, lan gogorra bezain dibertigarria izan da hori, Drive karpeta eta Telegram kanal bana erabili soilik koordinatu baitute den-dena: «Hogeita eta piko pertsona ibili gara lanean; batzuek, gainera, ez dugu oraindik elkar ezagutzen. Baina denak funtzionatu du; bakoitzak bere ardurak hartzen zituen eta apurka dena gorpuztuz joan da». Hala ere, azpimarratu gura izan dute ez lioketela «inori» gomendatuko lan-molde «desantolatu» horri jarraitzea, «ziur gaude lantalde honetan bakarrik funtzionatuko lukeela horrek».

Atopia RPG rol-joko bat da eta, aldi berean, liburu bat. Horretan, askotariko istorioak, ipuinak eta ilustrazioak aurki daitezke, den-denak Euskal Herri alternatibo batean oinarrituta.



Pertsonaien ekintzek botatako dadoen eta horien abilezien arabera izango dute eragina. HODEI TORRES

Jokoan enROLatzeko bost fakzio

STMA ordenaren eta sistemaren zaindaria; @gentzia fakziorik misteriosoena da, dena dakite eta prest daude informazioa prezio baten truke emateko; Lur4a konspiratzaile sutsuak dira, inork ez ditu serio hartzen, baina gehiegitan dute arrazoia; Internazional ikusezina anarkista oteizarrek osatzen dute, ordena disolbatu, desordena erein eta kaosa sortu gura dute; azkenik, Marxialistak, arte martzialetan adituak diren marxista-leninistek osatzen dute.

Umorea ere ez da falta, gaur egungo errealitateari askotariko keinuak egin baitizkiote arlo ugarritan, «erreferentzia kulturalaz josita dago dena eta umorea horri lotuta dago».

Jokoan bost fakzio daude, bakoitzak bere arketipoak ditu eta, ondorioz, pertsonaiek abilezia ezberdinak izango dituzte. Jokalariek eurenak osatu beharko dituzte horietan oinarrituta maizterrak proposatutako istorioari aurre egin ahal izateko. «Rol-jokoa interpretazio-joko bat da, azken finean. Fikziozko istorio bat kontatzeko modu bat da, lankidetzan. Kontakizun horien amaierak ez daude definituta, eta jokalarien ekintzek eta inprobisazioek eragingo dute emaitza horretan», azaldu dute. Momentuz, Atopia RPG jokoa 33 euroan egongo da salgai Durangoko Azokan, baita Algortako Etxeandia garagardotegian ere. ◀



Euskaraz amets egin,
ikasi, idatzi, lan egin,
maitemindu, jolastu,
gozatu, sentitu...
**zu zeu izan Kutxabanken
ere, bizi euskaraz.**

Aukeratu euskara Kutxabankeko harremanetarako.
Galdetu zure bulegoan.



Abenduak 3.
Euskararen Nazioarteko Eguna

Kutxabanken Hizkuntza Politika ikusi hemen:
www.kutxabank.eus



«Erabili, komunikatzeko; garbituko dugu gero»

Luze eta lasai jardun du euskararen gainean, pasioez eta eginbeharrez, zuzentzekoez eta lasai hartzekoez; hemen jaso ditugu batzuk, elkarrizketa osorik: www.hiruka.eus atarian.

BE Cetik irten berri aurkitu dugu Eunate Muruaga Amondarain (Berango, 1982), HABEren azterketak zaintzen luze jardun ostean. C2 mailako irakasleak aholkuak ematen dizkigu hirukatarroi hilean behin.

TESTUA: I. SAGARMINAGA ARGAZKIA: HODEI TORRES ►

Aspaldi Getxon bizi den biologian lizentziadunak Uribe Kostako AEKn irakasle jardun du azken 15 urteotan; gaur egun, C2 maila gorena irakasten. Zorte handikoak hirukatarrok: *Hizkuntzaren Zalantzagatzen* euskaraz zuzen erabiltzeko aholku-jarraibideak eskaintzen dizkigu

Gehiegi handitu da «titulitis» hau; kalte egiten digu euskaldunoi.

eta. Azterketez, tituluez, zuzentasunaz, komunikazioaz, euskararen gure keriez eta pasioez berba egin dugu beragaz.

Titulua hain da garrantzitsua? Duena baino handiagoa ematen zaiola uste dut, gehiegi sartu garela «titulitis» honetan. Garrantzia norberak ematen dio. Azterketarik prestatu nahi ez duten ikasleak ere etortzen zaizkigu, besterik gabe euskara ikasteko, eta ematen du dugun sisteman ia ezinezkoa dela, nolabait azterketen mundura edo «bideratzen» ditugu. Nik ez dut baloratzen pertsona baten euskara duen mailagatik; pertsonekin lan egiten dugu, eurekin harremanetan, eta horren arabera neurtzen dugu. Kontua da jende askok ematen diola garrantzia, euskara tituluarekin lotzen duela; horrek euskaldunoi kalte egiten digula uste dut. Euskara ez da bakarrik titulua ateratzea ala ez.

J.A. AGIRRE Euskaltegia
Heldu Euskarari! 2019-2020 Ikasturtea / Curso

6-16 Urteko gazteentzat Para jóvenes de 6 a 16 años
ASTEAN 3 ORDU / 3 HORAS SEMANALES
Astelehen eta asteazken / Astearte eta ostegun
Lunes y miércoles / Martes y jueves
17:30 - 19:00

16 Urteetik gorakoentzat / Para mayores de 16 años
MAILA GUZTIAK, GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
TODOS LOS NIVELES MAÑANA Y TARDE
AZTERKETA OFIZIALAK PRESTATZEKO IKASTAROAK LARUNBATETAN
CURSOS DE PREPARACIÓN DE EXÁMENES OFICIALES LOS SÁBADOS

Matrikula zabalik! Bulego ordutegia / Horario de oficina: 09:30-13:30 17:00-20:00

Algortako etorbidea 104, 48991 Algorta (Getxo) 944 606 671 www.jagirre.eus ldazkaritza@jagirre.eus

Titulua lortzeko azterketa gainditzeko ondo egin beharretako bat da hizkuntza zuzen erabiltzea: gramatikaren alorra, arauena... Horien gainean dihardu zure zutabeak. C1/EGA mailan batez ere, zuzentasunari garrantzia ematen zaio; orain beste arlo batzuk ere garrantzia hartzen ari dira, behingoz. Baina, zuzentasunak beti eduki du pisua, bai. Zutabeetan hala-koak lantzen hasi nintzen zuen eskariz, eta jende nahikotxok askotan galdetzen didalako... Baldin badakit, ez daukat inolako arazorik erantzuteko; gustura egiten dut. Beharrezkoa da, baina ez nago zuzentasunarekin obsesionatua; halere, zenbat eta garbiagoa, hainbat eta hobeto guretzat ere. Batzuetan sentsazioa dut egitura oker batzuk onartu egin ditugula erabili direlako; horregatik bakarrik?! Zuzenak belarrira txarto ematen didalako?! Horrek min apur bat ematen dit.

Zuzentasuna kalitateari lotutako faktoreetako bat da. Kalitatearen ala kantitatearen (erabilera) artekoen lehian, zeu zeinen alde? Kantitatea bultzatuko nuke: nahiago dut erabiltzea, txarto egin arren, ez egitea baino, lotsa ematen diolako edo akatsak egitearen beldur delako; gero zuzenduko edo garbituko dugu. Askotan ikasleei esaten diet: «Ez lotsatu, euskaldunok benetan eskertzen dugu halako ahalegin bat». Batzuetan ematen du txarto esaten duten oro zuzentzen gabiltzala, ez gara horretan ari! Lagundu ahal diet, baina ez dut zuzenduko.

Hedatutako ustea da euskaldun «zaharrok» «berriei» eten barik zuzentzeko joera handia dugula. Gaur egun, ez dut uste horrela denik; bestela, ez genuke elkarriketa naturalik izango. Edozein hizkuntzatan gertatzen da: denok ez daukagu maila bera, ezta gaztelaniaz ere! Zenbat akats ez ote ditugun entzuten horretan?! Eta ez gabiltza une oro zuzentzen! Halere, euskaldun «berriei» sentsazio hori badute, horrek eragiten badu ez egitea, horrekin amaitu beharko genuke.

Garbitze-prozesua nork onartzen du errazago? «Zaharrek», nagusiak direnek, gehienek, ez dute akats askorik, euskara garbia erabiltzen dute. Beste kontu bat gazteena da: euskaldun «zaharrek» izan arren, testuinguruaren eraginez, ohitura (txar) batzuk dituztelako, kalko okerrak erabiltzeko joera handiagoa dute; gaztelaniaren eragina handia da gudan, ez bakarrik hitzak, gaztelaniaz esateko modua bera erabiltzen dugu, ez dugu errespetatzen euskararen beraren modua edo izaera; euskarak berezkoak ez balitu bezala! Hori garbitzea gehiago kostatzen daiteke, ohitura kontua delako. Ostera, euskalduntze-prozesu batean sartuta dagoena une oro ari da zuzenketa-lan horiek egiten.

Uribe Kostan, «zaharrek», gutxi; «berriak» edo alfabetatuak, gehienak. Euskararen kalitatea? Klean gero eta gehiago entzuten dut, adin ezberdinetakoei gainera; pozgarria da! Nahiz eta jende askok esaten didan giro erdalduna dagoela, denetarik dago: Uribe Kosta handia da; inguru ezberdinak daude, eta, batetik bestera, desberdintasunak ere bai. Euskararen aldeko mu-

Kalitatea vs kantitatea

«Ez gaitetzen horrenbeste obsesionatu, eta erabil dezagun behar denerako: gure artean komunikatzeko, elkar ulertzeko...»

Zuzentasuna, gero

«Gero garbituko dugu; izan ere, behin ikasten hasita, hobe dugu ondo ikastea, ezta? Ahalegin bera eskatzen du eta!»

Euskalkia vs Batua

«Euskalkia ez nuke sekula galduko, eta ez dut inoiz esango Batuak gainetik egon behar duenik; ez nituzke lehian jarriko» (hiruka.eus-en)

Zalantzen aurrean, zer egin eta nora jo:

Komunikazioa hobetsi

Garrantzi handiegia ematen diogu zuzentasunari, eta ez horrenbeste komunikazioari. Hizkuntza komunikatzeko ere bada; helburu nagusia, beti, komunikazioa izan beharko litzateke. Noizbait gertatu zait euskarazko testu bat irakurtzea, erabat zuzena, baina ez dago nork ulertu! Komunikazio hori galdu duelako.

Euskaltzaindiaren web-orrira

Gramatika-zalantza bada, Euskaltzaindiaren web-orrira jo; bertan, araua bada, denak aurki daitezke. Garai batean ez bezala, gaur egun, Interneten eskura ditugu baliabide guztiak: hiztegiak, IRALEn web-orrria, eta abarrak. Zalantza gehien-gehienak erraz argi daitezke Euskaltzaindiaren web-orrrian, adibidez.

gimendua badagoela sumatzen dut, jendea saiatzen dela; nahiz eta egia den oraindik badela kopuru handi bat oso erdalduna dena. Baina, positiboa naiz! Nahiz eta asko eduki egiteke eta erraza ez izan.

Hurbilera etorri, lagunartekoan: WhatsApp-mezuak horrela dio: «Eskerrik! Gero etorriko?». Zer sentitu duzu? Dagoeneko, sentitu, gutxi! Askotan ikusi dudalako, etsita nago. Ez dut onartzen uste dudalako hizkuntzaren izaera bera galdu egiten dugula: «eskerrik» horren atzean ez dago «gracias». Berriro ere, gaztelania dugu oinarrian, ez euskararen izaera bera.

«Euskaltzaindikoak afaritaratu batu dira eta araua aldatu dute atzera ere?», zenbatetan entzun duzu? Euskaltzaindia ez dago oztopoak jartzeko, ez du arau bat aldatuko gogoia duelako. Gehienetan ez dira aldatu ere egiten. Moldaketak ematen badira, euskararen mesedetan da, eta zerbaitetan oinarritzen direlako, normalean, tradizioan, edo komunikazioan. Uneren batean tradizio hori galdu egin dugu, eta bueltatzeko beharra ikusten da, euskararen berezko izaera hori berreskuratzeko. Askotan entzuten ditut halakoak, edo «nire garaian ez zen hala»... Orain bada, eta arrazoi bat dago horren atzean, eta ez da «nahi izan dutelako».

Eta «hobesten da» (h.) horri zer deritzozu? Euskaltzaindiak zati bat araututa du; bestea, gomendioak dira; azken horiei jarraitu ahal diegu ala ez. Erreparatu beharko diogu erregistroari, hizkuntza zein esparrutan erabiliko dugun: formalean, hobespenerari jarraitu; bestean ez dugu hainbeste neurtu beharrik.

Zalantzategi horretatik salbu, noizbait ziur zaude? Ziur-ziur, inoiz ez! Ematen du erantzun bakarraren bila gabiltzala, ez dago gauzak esateko modu bakarra, asko baizik. Garrantzi handiegia ematen diogu zuzentasunari, eta ez horrenbeste komunikazioari. Hizkuntza komunikatzeko ere bada; helburu nagusia, beti, komunikazioa izan beharko litzateke. Noizbait gertatu zait euskarazko testu bat irakurtzea, erabat zuzena, baina ez dago nork ulertu! Komunikazio hori galdu duelako. Amorruta eman dit...

Zintzometroa martxan ipinita. Noizbait erlaxatzen zara? Euskaldun arruntzat edo euskararen zorotzat, frikitzat, duzu zeure burua? (Kar, kar) Zerbaitek arreta ematen badit, komenta dezaket, edo neure buruarekin hitz egin, arakatu; baina, ez naiz une oro neurtzen ari! Arruntzat, erabatekoa! Ez naiz zorotzat, erraz deskonektatu dezaket. Gustatzen zait eta gustura egiten dut; edozein gauza gustatzen zaigunean, gehiago aztertzen dugu, besterik gabe. Badakit noiz ari naizen hizkuntzarekin lanean, eta noiz hizkuntzarekin bizitzen. Ez gaitetzen horrenbeste obsesionatu zuzentasunarekin, eta erabil dezagun hizkuntza behar denerako: gure artean komunikatzeko, elkar ulertzeko, eta, ikasten hasita, hobe ondo ikastea; ahalegin bera eskatzen du eta! ◀



KALITATEZKO HEZKUNTZA EUSKARAZ

Euskarak 365 egun
EUSKARAREN EGUNA
abenduak 3

www.betikoikastola.eus
Artatza auzoa, 84 (48940) Leioa
info@betikoikastola.eus
94 464 23 64

KONFIANTZAZKOA ETA HURBILA

- 0-16 adin tartea.
- Euskara eta euskal kultura onarri.
- Ingelesa Haur Hezkuntzatik.
- Guraso kooperatiba.
- Herritarra eta eraldatzailea.
- Autobus zerbitzua 2 urtetatik aurrera.
- Bertako janaria, ikastolan sukaldatua.
- Proiektu berritzaileak: Konfiantzaren pedagogia, EKI, KiVa...
- Irakasleen etengabeko prestakuntza eta inplikazioa.

ikastolenkartea

Abenduaren 3a Euskararen Nazioarteko Eguna

Euskaraz bizitzeko eta gozatzeko hamaika aukera

Abenduaren 3an ospatzen den Euskararen Nazioarteko Eguna 1995ean instituzionalizatu zuten Eusko Jaurlaritzak eta Euskaltzaindiak. Harrezkero, euskararen erabilera eta euskara bera sustatu guran, hainbat elkarte, erakunde publiko eta herritarrek milaka ekitaldi antolatu dituzte horren harira, Euskal Herriko bazter guztietan eta, ikusiko duzuenez, Uribe Kostan ere bai. Horren denaren helburua da euskara omentzea eta sustatzea, bestea beste.

Barrika

Azaroak 30, zapatua

Diskofesta

17:30 | Udaletxeko karpan
Urtza taldearen emanaldia.

Txokolate-jana

19:30 | Udaletxeko karpan
Doan.

Abenduak 1, domeka

Herri-kirolen tailerra

12:00 | Udaletxeko karpan
Karpara bertaratuko diren denen gozamenerako.

Talo- eta txistorra-banaketa

13:00 | Udaletxeko karpan
Doan.

Berango

Abenduak 1, domeka

Azken balea

18:00 | Berango Antzokia
Tomax eta Muxi pailazoen ikuskizuna.

Abenduak 3, martitzena

EUSKARAREN EGUNA

Tailer berezia

16:30 | Ludoteka, Ludokluba eta Haur liburutegia

Kustomizatu gura duzuna.

Ipuin-kontalaria

18:15 | Ludoteka, Ludokluba eta Haur liburutegia

Eman hegoak euskarari!

Erandio

Azaroak 29, barikua

Eskulanak, dantza eta perkusioa

17:00 | Gizarte etxea | Erandiogoikoa
Doan.

Ekitaldia

19:30 | Auzoko plaza | Erandiogoikoa
Trikitilariak, txalaparta, dantza-plaza eta txokolatea.

Bertso-afaria

21:30 | Erandiogoikoa
Bertsolariak: Eli Pagola eta Aitor Sarriegi.

Abenduak 1, domeka

Triki-poteoa

13:00 | Astrabudua
Kalez kale.

Abenduak 3, martitzena

EUSKARAREN EGUNA

Berbodromoa

09:30 | Altzaga
Kiroldegian.

Kalejira

18:30 | Altzaga
Trikitilariak eta batukada.

Ekitaldi nagusia

19:00 | Altzaga
Euskaltzaleen sarea, desio eta bizipenak.
Bertsolariak: Inazio Vidal eta Imanol Uribe.

Dantza-plaza eta kantagunea

20:00 | Altzaga
Bertaratuko diren denen gozamenerako.

Getxo

Abenduak 3, martitzena

EUSKARAREN EGUNA

Batukada

Goizean zehar | Ikastetxeetan
Udalerriko ikasleentzako ekimena.

Kantu-karaoke gosaria

09:00 | Muxikebarri Antzokia
Euskaltegietako ikusleentzako ekimena.

Ekitaldia

18:00 | San Nikolas plaza
Euskaraldiaren aurkezpena, eta bizipenak eta desioak partekatu. Euria egingo balu, frontoian.

Dantza-ikuskizuna

Ekitaldiaren ostean | San Nikolas plaza
Organik dantza-taldearen emanaldia eta, segituan, Getxoko ikasleen batukada. Ondoren, familia-argazkia egin eta mokadutxoak banatuko dituzte.

Hezurbeltzak-en kontzertua

20:00 | Muxikebarri Antzokian
Egunari amaiera emateko kontzertua egingo dute Algotako Muxikebarri Antzokian, doan.

Gorliz

Azaroak 30, zapatua

Literatur tailerra

18:00 | Sertutxena
Aritza Bergara idazleak partekatutako saioa.

Abenduak 3, martitzena

EUSKARAREN EGUNA

Malabaristen emanaldia

Goizean zehar eta 14:30 | Gorlizko ikastetxea

Nai malabaristaren ikuskizuna, Gorlizko ikastetxeko LHko ikasleentzako.

Abenduak 6, barikua

Euskal pailazoak

18:00 | Udaletxearen ondoko karpa
Puski eta Txurruski pailazoen ikuskizun barregarria!

Leioa

Abenduak 1, domeka

Kaleko animazioa

12:00 | Elexaldetik hasita
Taberna ibiltaria.

Musikarium

18:00 | Auditorium
Umeentzako ikuskizuna; sarrera, 5 euroan.

Abenduak 2, astelehena

Rap-tailerra

18:00 | Gaztegunea
La Basuren eskumenez, 14 eta 17 urte arteko gazteentzat.

Abenduak 3, martitzena

EUSKARAREN EGUNA

Revolta Permanent

10:00 | Auditorium
DBHko 3. eta 4. mailetako ikasleentzako kontzertua, sarrera 4 euroan.

Euskaraldiaren aurkezpena

18:00 | Sabino Arana kalea
2020ko Euskaraldia egitasmoaren nondik norakoak ezagutaraziko dituzte.

Bakarrizketa

URDULIZEN
Euskara **gehiago,**
gehiagorekin, gehiagotan!

URDULIZKO UDALA
☎ 946 762 061
📍 Elortza plaza, 1
🌐 www.urduliz.eus
✉ urduliz@urduliz.eus

19:00 | Sabino Arana kalea
Jose Cruz Gurrutxagaren bakarrikzeta.

Abenduak 7, zapatua
Manou
17:30 | Auditorium
Umeentzako zinema ikuskizuna; sarrera 4 euroan.

Abenduak 8, domeka
Manou
17:30 | Auditorium
Umeentzako zinema ikuskizuna; sarrera 4 euroan.

Lemoiz

Abenduak 1, domeka
Euskal orroka ipuin-kontaketa
Arrastian | Armintza
Maite Frankok irakurritako ipuinen kontaketa.

Abenduak 3, martitzena
EUSKARAREN EGUNA
Txokolate-jana eta disko-festa
19:00 | Armintza
Euskararen Eguna ospatzeko txokolatea banatu eta Disko Arima Eroa egingo dute.

Plentzia

Abenduak 13, barikua
Bertso-jira eta afaria
19:00 | Herrigunea
Bertsolariak: Miren Amuriza eta Igor Elortza.

Abenduak 14, zapatua
Antzerki arinak
Zehazteke | Danontzat gaztetea
Danontzat gazteteak antolatuta.

Sopela

Azaroak 29, barikua
Bost diskoaren aurkezpena
20:00 | Kurtzio Kultur Etxea
Xabi Aburruzagak disko berria aurkeztuko du kontzertua emanez. Sarrera, 7 euroan.

Azaroak 30, zapatua
Ander Deuna Eguna
11:00 Kalejira
Udaletxetik Ander Deuna baselizara.
11:00-11:30 Autobusa
Irteera, Urbasa taberna aurrean. Buelta 13:30-14:00etan izango da.
12:00 Meza
Ander Deuna baselizan.

12:30 Erromeria
Aurretik, ohorezko aureskua eta hamaiketakoa.

Azaroak 30, zapatua
Urepel abesbatzaren kontzertua
20:00 | Kurtzio kultur etxea
Sarrera, doan.

Abenduak 1, domeka
Bertso-jira
12:00 | Tabernaz taberna, Laiaketik hasita
Bertsolariak: Uxue Alberdi eta Sustrai Colina.

Abenduak 1, domeka
Zaldi Urdina
20:00 | Kurtzio Kultur Etxea
Artedrama taldearen helduentzako antzerkia, euskaraz. Sarrera, 8 euroan.

Abenduak 2, astelehena
Euskal rap eta beatbox berbaldia
10:00-12:00 | Kurtzio Kultur Etxea
Ander Deunako eta Iberreko DBHko 3. eta 4. mailako ikasleei zuzenduta.

Magia-ikuskizuna
10:00-12:00 | Ander Deuna ikastolako mediateka
Imanol Ituiño magoaren ikuskizuna, Ander Deunako LHko 4. eta 5. mailako ikasleei zuzenduta.

Abenduak 3, martitzena
EUSKARAREN EGUNA
Ez da kasualitatea

11:00 | Kurtzio Kultur Etxea
Ander Deunako Batxilergoko ikasleei zuzendutako bertso-saio musikatua.
Bertsolariak: Onintza Enbeita, Uxue Alberdi eta Naroa Torralba.

Euskera, horixe altxorra
15:00 eta 16:30 | Zipiriñe eskola
Ipuin-kontalari.

Marilurrek 5,722.630 ipuin dakizki
10:00-12:00 eta 14:00 | Ander Deuna ikastolako mediateka
Ander Deuna ikastolako LHko 1. 2. eta 3. mailako ikasleentzat.

Txokolate-jana
14:30 | Ander Deuna ikastolako patioan
Ikasleentzat.

Berbalagun dinamikaren amaierako ekintza
18:30 | Kurtzio Kultur Etxea
Berbalagun egitasmoaren kideei zuzenduta.

Ez da kasualitatea
20:00 | Kurtzio kultur etxea
Bertso-saio musikatua.
Bertsolariak: Miren Amuriza, Malen Amenabar, Nerea Ibarzabal eta Jone Uria. Sarrera, 3 euroan.

Abenduak 4, eguaztena
Beatbox berbaldia eta tailerra
10:00-12:00 eta 14:00 | Ander Deuna ikastolako Mediateka
Boris Bringasegaz, Ander Deunako LHko 6. eta DBHko 1. eta 2. mailako ikasleei zuzenduta.

Triki-kalejira
10:30 | Ander Deuna ikastolako patioan
Xabi Aburruzaga trikitilariagaz.

Nahia eta Neo
Goizean zehar | Zipiriñe eskola
Txotxongilo-ikuskizuna, euskaraz.

Abenduak 5, eguena
Badut ipuin musikatua
10:00-12:00 eta 14:00 | Ander Deuna ikastolako mediateka
Ander Deunako HHko 3. 4. eta 5. mailako ikasleei zuzenduta.

Nahia eta Neo
Arrastian zehar | Zipiriñe eskola
Txotxongilo-ikuskizuna, euskaraz.

Urduliz

Abenduak 4, eguaztena
Ipuinak jo eta musikak kontatu
Ordua zehazteke | Elortza eskola
Ipuin musikatua Haur Hezkuntzako 2 eta 5 urte arteko umeei zuzenduta.

Abenduak 5, eguena
Magia Parrastan
Ordua zehazteke | Elortza eskola
Imanol Ituiño magoaren ikuskizuna, Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. zikloko umeei zuzenduta.

Zer-zelakoa izango da hurrengo Euskaraldia?



URIBE KOSTA | Aurkezpenak 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean egingo da Euskaraldiaren bigarren edizioa. Hamabost egunez, Euskal Herriko ahobiziek eta belarriprestak euskaraz bizitzeko saiakera egingo dute; era berean, hirugarren ezaugarri bat gehitu diote datorren edizioari: ariguneak. Horren nondik norakoak ezagutzeko, hurbildu zaitez Euskararen Egunaren harira herriz herri egingo diren aurkezpenetara. Bestela, jo aldizkari honetako 16 eta 17 orrialdeetara, bertan laburbildu baitugu joan den azaroaren 20an Donostian egindako aurkezpenean kontatutakoak.



Euskaraldia 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra

Euskara «gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan» egiteko saiakera

Azaroaren 20an aurkeztu zuten Euskaraldiaren bigarren edizioa. Hamabost egunez, belarriprest eta ahobiziak izango dira berriro Euskaraldiaren protagonistak. Gainera, oraingoan askotariko entitateak batuko zaizkie ariguneak osatzeko. Daborduko entitateek arigune horiek sortu eta inskribatzeko aukera dute Euskaraldiaren webgunearen bitartez.

TESTUA: IKER RINCON MORENO ARGAZKIA: EUSKARALDIA ►

Urtebete igaro da Euskaraldiaren lehenengo edizioa egin zenetik. Saiakera hark izan zuen arrakastaren ondorioz, bigarren edizioa egitea erabaki dute, 2020ko azaroaren 20tik aurrera. Oraingoan, ahobiziek eta belarriprestak hizkuntza ohiturak aldatzeko hamabost egun izango dituzte; horrez gainera, taldeetan ere eragiteko aukera izango dute mota denetako entitateetako kideek. «Horretarako, Euskaraldian garrantzi berezia hartuko duen kontzeptu berri bat sortu da: arigunea», azaldu zuten arduradunek azaroaren 20an Donostian egindako aurkezpenean. «Euskaraz aritzeko babesgune modura osatutako ariguneak izango dira ariketa sozialean taldean jarduteko aukera emango duten espazioak». Daborduko Euskaraldian inskribatu eta ariketarako martxan ipiniko diren ariguneen berri eman dezakete entitateek.

Bingen Zupiria Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuak Donostian aipatu zuenez, «ekimenaren bigarren edizioaren leloa aurkezteko baliatu dute Euskaraldiaren bultzatzaileek gaurko ekitaldia. *Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan* lelopean Euskaraldiaren bigarren edizioak hainbat berritasun izango dituela azpimarratu dute. Lehen edizioaren balorazioan aipatu modura, ibilbide luzeko ekimena izateko

Euskaraz egiteko babesgune modura osatutako ariguneak izango dira taldean jarduteko espazioak.

Euskaraldiak abiapuntu «ona» izan zuen lehenengo edizioan. Hala, bigarrena indartzen saiatuko dira.



Euskaraldia Euskal

sortu zen Euskaraldia eta edizioz edizio urrats berriak ematea da helburua». Ildo horretan, Kike Amonarrizek, Euskaltzaleen Topagunearen lehendakariak, honakoa gehitu zuen: «Lehen Euskaraldiak zabaldu zuen komunitate-zentzua hurrengoan sendotu egin nahi dugu, eta herriz herri sortutako indar hori egonkortzen saiatuko gara».

«GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN». Ekimenaren bigarren edizioaren leloa aurkeztu zuten Euskaraldia egitasmoaren bultzatzaileek Donostiako ekitaldian. *Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan* lelopean Euskaraldiaren bigarren edizioak hainbat berritasun izango dituela azpimarratu zuten. Lehen edi-



San Nikolas
IKASTOLA

EUSKARA BIHOTZETATIK EZPAINETARA!

**EXCELENCIAACADÉMICA KULTURA ENGLISH >4
URTEHAURTZA INDEGIA FAMILIAZERBITZUZAB
ALA FRANÇAISIKASKETAKOOPERATIBO AERA
SMUSPLUS INNOVACIÓN SOCIAL SCIENCES ST
EAMKIVA SORMENA HEZKIDETZA ORIENTACIO
NACADÉMICA ATZERRITRUKAKETAROBOTIKA
QUALITY ADIMENEMOZIONALAKIROLA EXTRA
ESCOLARES RESULTADOS CONTRASTADOS**

www.sanikolas.eus || 94 430 54 78 || Areneazpi, 15 - Getxo



Herri osoan egingo den arren, tokian tokiko euskaltzaleak izango dira hiri eta herri bakoitzean garatuko diren dinamiken sustatzaileak.

zioaren balorazioan aipatu modura, ibilbide luzeko ekimena izateko sortu zen Euskaraldia 2018an eta edizioz edizio urrats berriak ematea da horren helburua. Joan den irailean aurkeztutako ikerketaren arabera, abiapuntu ona izan zuen euskararen aldeko ariketa sozial berritzaile horrek; hala ere, eragina handitzeko, gehiago jardun beharra dagoela nabarmendu dute arduradunek.

Garapen horri erantzuteko asmoz, Euskaraldiak egun gehiago izango ditu hurrengo edizioan, hamabost hain zuzen; 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra. Beste berritasunetako bat da taldekako ariketak ere protagonismoa izango duela bigarren edizio horretan. 2018ko ariketak banakako harreman

2020ko ediziorako
ere herri-batzordeek
garrantzia izango dute
Euskaraldia antolatzeke
unean.

nak hartu zituen aintzat; oraingoan, aldiz, banakako harreman pertsonal horietan ez ezik taldekako eremuetan ere ariketa egiteko aukera izango dute herritarrek. Horretarako, entitateetan Euskaraldian parte hartzeko aukera zabalduko da, hala nola lantokietan, enpresetan, administrazio publikoan, herrietako asanbladetan eta taldeetan. Horietan denetan ekimenak «aukera emango die ahobizi eta belarriprestei eremu berrietan inertiak hautsi eta hizkuntza-ohitura berriak barnerratzeko», azaldu dute antolatzaileek.

ZER DA ZER. Ahobiziek euskaraz ulertzen duten guztiakaz egunero euskaraz egiteko konpromisoa hartuko dute. Kideek euskaraz ulertzen ote duten ez dakitenean ere, lehenengo berba, beti, euskaraz egingo duet eta euskaraz ulertzen badute, euskaraz jarraituko dute. Batzuetan zaila izan arren, elkarrikketa elebidunetan ere euskarari eutsi beharko dio kideek hizkuntza ulertzen duten bitartean.

Belarripresten kasuan, aldiz, norberaren gaitasunaren eta aukeren arabera erabakiko dute euskaraz noiz eta nogaz egin. Beti ez dute euskaraz egingo ulertzen duten guztiakaz, baina euskara dakitenean argi eta garbi jakin beharko dute beragaz uneoro euskaraz berba egitea gura dutela; horretarako, txaparen bidez jakinaraziko dute nahi hori, modu esplizituan.

ENTITATEAK ARIGUNEEN SUSTATZAILAK. Edizio berriak iazko dinamika «zabaltu eta sakontzea» du helburu: «Ekimenara ahobizi eta belarriprest gehiago bildu eta rolak ongi lantzea, alegia» Kontuak hala, rol bi horien figurak zer diren azaltzen segituko dute: «Portaeran dago gakoa, ez euskaraz hitz egiteko gaitasunean».

Ariguneak eta entitateak berritasuna izango diren arren, belarriprest eta ahobiziek izango dira protagonista edizio honetan ere, arduradunek argitu gura izan dutenez. Kontuak hala, hurrengo urteko ariketan joan den edizioan erabili ziren txapa berak izango dira elementu garrantzitsu bat, eta antolatzaileek arreta berezia emango diote horiek biak ariketarako prestatzeko.

Ariguneak dituzten entitateen kasuan, taldearen barruko kideen parte-hartzea ahalbidetzea eta sustatzea izango da entitatearen zeregin nagusia, «baita arigune horiek babesteko neurriak hartzea ere». Horregatik, azpimarratu dute entitateak sustatzaile izateko funtzio garrantzitsua duten eragileak izatera pasako direla bigarren edizio horretan.

HERRI-BATZORDEAK, MARTXAN. 2018ko Euskaraldian herri-batzordeek erabateko garrantzi izan zuten Euskaraldia antolatzeke, «herriz herri eraiki baitzen ekimena». Orain, hasi berri den edizioan, batzordeek garrantzi berdina izango dute. «Irailean ireki zen herrietako batzordeek izena emateko epea, eta egunez egun gehiago dira antolatzen hasi eta izena eman duten herriak; martxa onean doa izen-ematea», iragarri dute Euskaraldiaren antolatzaileek. ◀

OSORIK DA!

54. DURANGOKO AZOKA

2019ko abenduaren 5etik 8ra

P+ DOAN

www.durangokoazoka.eus

ANTOLATZAILAK

BABESLE NAGUSIAK

ERAKUNDE PUBLIKOAK

BABESLE PRIBATUAK

Maren Goienaga Madariaga 2019ko Argia Ereiten Saria

C.D. Galea taldean euskara sustatzeagatik goraipatua

Getxoko Argia Ereiten Sariak Maren Goienaga entrenatzaile gaztearen jarrera goraipatu du, «bere bizitza pertsonalean zein kirol-ibilbidean euskararen aldeko etengabeko jarrera duelako, eta, berari esker, bere taldeko jokalarien arteko euskarazko harremanak eta elkarriketak areagotu direlako».

IKER RINCON MORENO ►

Euskararen erabilera sustatzen dutenak goraipatzen dituzten sariketarak Maren Goienaga entrenatzaile gaztearen jarrera saritu gura izan du hamargarren edizio honetan. Hala, Santurtziko ikastola batean lanean ari den 27 urteko algortar horrek Ibon Garagarza eskultorearen lana jaso zuen azaroaren 26an, Muxikebarrin egindako ekitaldian.

Goienaga 16 urte zituela hasi zen futboleko jolastean Galean, 24 urte bete zituen arte. Ordutik bertako entrenatzailea izan da, eta sorpresa handia izan da berarentzat saria jasotzea: «Ilusio handia egiten didan saria da, erakusten didalako egin dudana apur horrek jendearengana zer bait piztu duela. Harrigarria bezain polita izan da». Goienagak eguneroko bizitzan euskarareki-



«Aitzakia bat baino ez dugu behar euskaraz egiteko, eta aitzakia hori lehen hitza egitea da. Bada, egin dezagun lehenengo berba euskaraz»

MAREN GOIENAGA MADARIAGA
C.D. GALEAKO ENTRENATZAILEA

ko duen jarrera futbol-mundura eramane du. Bere hitzetan, «zoritxarrez, horren euskaldunduta ez dagoen giroa da futbolarena»; taldera heldu zenetik, euskara-burbuila bat sortu zuen, eta urteak joan ahala, klubaren barruan izan duen presentzia handitzeagaz batera, helburu finkorik eduki gabe, burbuilaren neurria ere hazi egin da, giroa euskalduntzen lagunduz.

Galea taldean euskaraz berba egiteko gogoia duten pertsonak topatu dituela aitortu du algortarrak, baina ohitura-faltagatik, aitzakia bat behar zuten euskaraz egiteko eta aitzakia hori uste du berak «erraztu» duela lehenengo hitza euskaraz egitean. Bere ustetan, Euskaraldiak kontzientzia sortu zuen eguneroko bizitzan euskara sustatzeko ohituraren aldeko aldaketa egiteko.

Ikastolan lanean dagoela, ikusten du gazte askok mundu akademikoagaz eta beharragaz lotzen dutela euskara eta horrek ezkortasuna sortzen duela. Gazteek gustuko duten ekintzetan, jarduerak fisikoagaz edo aisialdiagaz zerikusia duten ekintzetan, euskararen hazia sartzea oso garrantzitsua delakoan dago. Berarentzat oso polita izan da ikustea Galean euskaldunak ez diren askok denboraldiaren amaieran harremanak euskaldundu dutela beragaz, bortxatu barik. «Sariak bultzatuko nau gogo gehiagorekin jarraitzera egiten duguna egiten, hau da, euskara normalizatu bizitzaren arlo guztietan». ◀



Eskarmentu handiko lantaldea, ehunka ikasle giro atseginean euskalduntzeko

Betiko legeez, prakak bete lan dabilta sasoi honetan AEK-k Uribe Kostan dituen lau euskaltegietan: Algortakoa (Lauaxeta), Leioakoa (Lamia), Plentziakoa eta Gorrizkoa (azken horiek biek izen bera dute: Jentilbaso). Ondo hasita dago ikasturtea, baina matrikulazio-eskaintzak ez du etenik. Abenduaren 20ra bitartean, esate baterako, zabalik dago epea 2020ko lehen hiruhilekoko ikastaro trinkoetan (urtarriletik martxora) izena emateko.

Maiatzean administrazio publikoan jarduteko oposizioak egingo dira, eta askok beharko dute euskara-soslai egokia lortzeko ikastaro trinkoa, Iratxe Marta Uribe Kostako AEK-ko arduradunak azaldu digunez. «Oraingoan B2 titulua eskuratzera etorriko dira gehienak», argitu du, «maiatzeko oposizioetan horixe eskatuko diete eta».

IKASLEAK EUSKALDUNTZEN... ETA MOTIBATZEN. Urtarriletik martxora bitarteko ikastaro trinkoetan 204 orduko ikastaldia eskainiko du AEK-k: lau orduko saioak goizero, hiru hilabetez. «Urte asko daroagu hau egiten eta badakigu gure irakasteko modua egokia dela», dio Martak, «metodologia komunikatiboa erabiltzen dugu, hau da, ez dugu besterik gabe euskaratzen; ikaslea euskaldundu egiten dugu».

Bokazio handiko 25 irakasle dabilta eskualdeko AEKren euskaltegietan, gehienak denbora luzez. «Eskaria aldatuz joan bada ere, ondo dakigu zelan egiten den euskalduntze-prozesu bat, ikasleak behar bezala motibatuz», aldarrikatu du Ira-



AEK Uribe Kostan

Lauaxeta
Iparbide 6, behea. **ALGORTA**
944 304 734
lauaxeta@aek.org

Lamia
Luis Libano Bilbao 8. **LEIOA**
944 646 063
lamia@aek.org

Jentilbaso
Kristo enparantza 8. **PLENTZIA**
Iberre plaza 5. **GORLIZ**
946 773 607 / 946 773 646
jentilbaso@aek.org

txe Martak. Lan-molde horren emaitza onen adierazleetako bat da, haren berbetan, ikasle izandako batzuk irakasleen lantaldean dituztela orain. «Guretzat garrantzitsua da, azterketako emaitzaz gain, ikasleak eskaraz komunikatzeko gai izatea». Horrek ez du esan gura, noski, AEK-k ere bere ebaluazioa egiten ez dienik ikasleei.

Ikastaro trinkoak aspertzearen sinonimoa izan behar ez duela diote horretan dabilzan irakasleek. «Lehenengo orduetan, ikasleak oraindino sasoiari daudenean, parterik latzena lantzen dugu: teoria, ariketak... Baina goizean zehar gauza arinakaz tartekatzen ditugu, kanta eta antzezlanak eginez, entzumena trebatuz...». Izan ere, hiru hilabeteak dira ikastaro trinkoak, baina ikasle batzuek horiek bata besteari itsatsiz ematen dute ikastaro osoa. Prezioari dagokionez, ikastarootarako diru-laguntza publikoak daudela gogorarazi du AEK-k (udalenak, Bizkaiko Foru Aldundiarenak eta HABErenak); baldintza jakinak betez gero baliteke ikasleak ezer ordaindu behar ez izatea.

EUSKARA IKASTEKO BESTE ERA BATZUK. Eskola barruko irakaskuntza klasikoa ez da AEK-k duen eskaintza bakarra. Uribe Kostako lau euskaltegietan 498 ikasle dabilta horrela gaur egun, baina beste 38k auto-ikaskuntza aukeratu dute: astean behin elkartzeko dira aurrez aurre irakasleagaz, eta mintza-saio batzuk ere badituzte; baina lan gehiena etxean egiten dute, irakasleak agindutakoa betez. *On-line* ikastaroak ere badituzte, gainera, eta horretan dabilta eskualdeko irakasle bi.

ABENDUAK 3

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA
2020KO EUSKARALDIAREN AURKEZPENA

09:00ETATIK AURRERA

KANTUKARAOKE GOSARIA EUSKALTEGIEKIKO IKASLEENTZAT MUXIKEBARRIN
GETXOKO IKASTETXEETAN IKASLEEN BATUKADA

18:00ETATIK AURRERA - ALGORTAKO SAN NIKOLAS PLAZAN

2020KO EUSKARALDIAREN AURKEZPENA
ANIZTASUN FUNTZIONALAREN EGUNA - AMESTEN ELKARTEAK GUREKIN BAT
BIZIPENAK PARTEKATU & DESIOAK SARETU
ORGANIK DANTZA TALDEAREN IKUSKIZUNA
BATUKADA
FAMILIA ARGAZKIA
MOKADUTXOA
HEZURBELTZAK TALDEAREN KONTZERTUA MUXIKEBARRIN

EZ AHAZTU ZURE TXAPA!


ANTOLATZAIKAK



getxozarrak.eus

f @getxozarrak

A cartoon illustration of a young boy with brown hair, wearing a pink long-sleeved shirt and blue pants. He is sitting at a yellow desk, looking at a large white sheet of paper. He is holding a green pencil in his right hand. A blue desk lamp is on the desk to his right. A blue chair is behind him.





Tatuaiea

Maripurtzili ikaragarri gustatzen zaizkio tatuaieak. Hona hemen bere besoa. Egin iezazkiozu tatuaieak batzuk.



Esaera zaharrak

Esaldi hauek bat etor litezke marrazkiak adierazten duenagaz, baina denak ez dira esaera zaharrak. Zehazki esanda, erdiak asmatuak dira. Bereiziko dituzu?

1

Martxoko eguzkia,
txarren txarrena

Apirilean ezin jakin
noiz izango den ateri

Maitasuna eta
gorrotoa bezala,
eguzkia eta euria,
elkarren kontrario

5

Eguzkia eta euri,
martxoko eguraldi

4

Apirila euritsu,
urtea kakatsu

6

Euriak ez daki eguzkia ahaltsuagoa dela


Pareak bai!

Arriskutsuak ala onuragarriak izan, benetan xelebreak dira mikrobio guztiak. Forma harrigarri eta bitxiak dituzte. Ondoko irudian aurkitu bikoterik osatzen ez duen «xomorrotxoak».

Ondoko lauki honetan, marraztu eta margotu bakterio zintzo bat.




Eta beste lauki honetan, birus gaizto bat.




Bota dadoa!

Zortzi dado hauek tranpati samarrak dira. Lau besterik ez datoz bat irudi zabalduagaz. Zeintzuk dira? Horrela asmatzea zaila baldin bazaizu, irudi zabaldua paper batean marraztu eta dadoa muntatu. Berehala konturatuko zara zeintzuk diren txarrak eta zeintzuk onak.



Izua

Osa ezazu sudokua, IZUA berbak dituen letrakaz.



Lehiaketa Non dago?

Uribe Kostako irudi honetan zer ageri den igarriz gero, beheko saria irabaz dezakezu.

Argazkia NON egindakoa den badakizu?



Saria Umeentzako liburuak

Ibaizabal argitaletxeari esker, 3 urtetik gorako umeentzako hainbat liburu zozkatuko ditugu. Sari hori irabazi gura baduzu, abenduaren 13a (barikua) baino lehenago bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337.



AINGARA



BORDATUAK EUSKAL JANTZIAK

Aurrezki Kutxa, 18
48930 Erromo
GETXO

944 038 953
bordadosaingara.com



Ebaki bonu hau eta %10eko deskontua izango duzu gure produktuetan*

*bordatuak eskaintzatik kanpo
*bonua ebaki eta dendan aurkeztu





EUSKO LABELA DUEN ABELGORRIA
TREBETASUNA ETA PROFESIONALITASUNA

BASQUE LABEL HARATEGIAK
— %100 GURE —
BASERRITARREKIN

IK
EUSKO LABEL

EUSKO LABEL PRODUKTUTAN
ESPEZIALIZATUTAKO TOKIA
ESTABLECIMIENTO ESPECIALIZADO
EN PRODUCTOS CON EUSKO LABEL

ZURE BASQUE LABEL HARATEGIA

GETXO:
CARNICERÍA ESTEBAN - Ganeta, 3 Romo-Las Arenas
CARNICERÍA JUAN MARI - Las Mercedes, 31 Las Arenas

SOPELA:
CARNICERÍA EIZMENDI - Doctor Landa, 1

ERANDIO:
CARNICERÍA LUIS ANGEL BILBAO - Tartanga, 5

hazi
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Euskadi, auzolana



Algortan euskal kultur txokoa martxan
dela badiotsut, ez harritu: AZEBARRITU!
Bazkidetu zaitez eta bizi euskara!



*euskaltzaleon
kultur txokoa*

ABENDUKO EGITARAUA / Sarrera librea

- 12** 17:30 Gabonetako apaingarriak. Sendi Proiektuarekin elkarlanean (eman izena).
- 13** 20:30 Zerura eroria. Anodino Teatroa. Komedia zoro, ganberro eta lotsabakoa.
- 14** 20:30 Mexikar gaua, afaltzeko natxoak & quesadillak, tekila txupitoak
22:30 Txapito Guzmán eta Ibarako langostinuek. Musika lokala itxi arte!
- 23** Taberna ibiltaria. Olentzero batzordearekin batera.



WWW.AZEBARRI.EUS | 688 652 917 | EUSKAL HERRIA 14-16, ALGORTA